



TOLOSAKO  
UDALA

## TOLOSAKO UDALEKO BERDINTASUN KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

### ARRAZOIEN AZALPENA

Azken urteotan, emakume-taldean eta talde feministen lanari esker, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira gure herrian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Hala ere, asko dago egiteko oraindik emakumeen eta gizonen arteko erabateko aukera-berdintasuna lortzeko bidean, eta behar-beharrezkoa da bide horretan gizarte osoak parte hartzea, behar-beharrezkoa inplikazioa, gizartean bizi-bizirik dauden egoera onartezinak ezabatzeko, adibidez: eremu publikoan oraindik ere emakume gutxi hartzen dute parte; lana aurkitzeko zailtasun handiagoak dituzte; emakumeen segmentazio sektoriala eta profesionala dago, eta lan-baldintza kaskarrak dituzte; soldatetan desberdintasun handiak daude; etxeko lanetan eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko orduan erantzunkidetasunik ez dago; etengabeko eraso jasaten dute emakumeen oinarritzko eskubideek indarkeriaren bidez.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunezkoak, 24.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko dituzte entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarrekin politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargaria izango dena».

Gure udalerriri dagokionez, Tolosako

## REGLAMENTO DEL CONSEJO DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años, y gracias al esfuerzo de los grupos feministas y de mujeres, se han realizado importantes avances en materia de igualdad de mujeres y hombres en nuestro municipio. Sin embargo, aún es mucho lo que queda por hacer para la consecución de la plena igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, y en este camino es necesaria la implicación del conjunto de la sociedad, implicación necesaria para erradicar situaciones inaceptables que se siguen manteniendo en la sociedad, como la persistencia de una menor participación de las mujeres en el ámbito público, mayores dificultades de acceso al empleo, segmentación sectorial y profesional de las mujeres y precariedad en sus condiciones en el empleo, diferencias salariales importantes, inexistencia de corresponsabilidad en las tareas domésticas y en el cuidado de las personas dependientes, además del ataque continuo a los derechos fundamentales de las mujeres a través de la violencia contra las mismas.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en su artículo 24.5 dispone que «la Administración de la Comunidad Autónoma promoverá la creación de una entidad que ofrezca un cauce de libre adhesión para la participación efectiva de las mujeres y del movimiento asociativo en el desarrollo de las políticas sociales, económicas y culturales y sea una interlocución válida ante las administraciones públicas vascas en materia de igualdad de mujeres y hombres».

A nivel municipal, en el artículo 16 de la



Udalak 2008an onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 16. artikuluan, Berdintasun Kontseiluaren sorrera jasotzen da, «emakumeek eta gizonek gobernuan eta udal bizitza publikoan baldintza beretan parte-hartzen dutela ahalbidetzeko, errazteko eta bermatzeko».

Halaber, ordenantzaren 17. artikuluan jasotzen denez, «Berdintasunerako Kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu araudia Udalbatzak zehaztuko du Berdintasunerako Zerbitzuak proposamena egin ostean».

Era berean, ordenantza horren 18. artikulua honako hau xedatzen du: «...herriko esparru guztietan emakumeen presentzia, parte-hartzea eta errekonozimendu handiagoa bultzatze aldera, xede hori duten jarduerak egiteko asmoa duten elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaerek lehentasuna izango dute».

Ildo horri jarraituz, Tolosako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020), 2. ardatzean. Ahalduntzea eta Partaidetza, 2.1.4.1 neurrian, udal Parekidetasun Batzordearen zeregina indartzeko beharra formulatzen da, batzorde horretan emakume elkarte edo ez elkarte gehiago sartuz eta udal politiken jarraipenean protagonismo handiagoa emanez.

Erregelamendu honen arabera, herritarren parte-hartzea helburu bat ez ezik, bitarteko bat ere bada, kontsultatik edo proiektuak definitzeko eranskin tekniko batetik harago doana. Hala, bitarteko honek sustatzen duena da jarrera edo pentsamendu kritiko bat eta erabakiak hartzea, herritar aktiboak izateko oinarri gisa.

Ordenanza Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Tolosa (2008) se recoge la creación del Consejo de Igualdad, «con el fin de posibilitar, facilitar y garantizar la participación en igualdad de mujeres y hombres en el gobierno y en la vida pública municipal».

En el artículo 17 de la Ordenanza se recoge que «la composición, competencias y régimen de funcionamiento del Consejo para la Igualdad vendrán determinadas por el Pleno a propuesta del Área de Igualdad».

Y el artículo 18 de la misma Ordenanza dispone que «con el fin de propiciar una mayor presencia, participación y reconocimiento de las mujeres en todos los ámbitos de la vida municipal, las solicitudes de subvenciones que presenten asociaciones y organizaciones para actividades que favorezcan tal incremento en la presencia, participación y reconocimiento de las mujeres tendrán carácter prioritario».

Siguiendo en esta línea, en el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres (2015-2020) del Ayuntamiento de Tolosa, en el Eje 2. Empoderamiento y Participación, en la medida 2.1.4.1. se formula la necesidad de reforzar el papel de la Comisión de Paridad Municipal, con la incorporación de más mujeres asociadas o no asociadas en la misma y más protagonismo en el seguimiento de las políticas municipales.

Para este reglamento, la participación ciudadana, además de un medio, es un objetivo, que va más allá del carácter consultivo o un anexo técnico a la definición de los proyectos. Ha de considerarse como un medio que fomenta una actitud o pensamiento crítico y la adopción de decisiones como base para una ciudadanía activa.



TOLOSAKO  
UDALA

Parte-hartze hori eraginkorra izan dadin, edozein prozesutan parte hartzen duten pertsonak ez dute hori gonbidapen gisa sentitu behar, eskubide gisa baizik. Gainera, sentitu behar dute parte-hartzeak eragina izango duela eraldatu nahi den prozesuan edo haien bizitzetara eragiten dieten politiken definizioan.

Era berean, herritarren parte-hartzeak printzipio orokor hauek bete beharko ditu eta orientabide izan: hurbiltasuna, inklusioa, aniztasuna eta eraginkortasuna.

Para que esta participación sea efectiva, las personas que participan en cualquier proceso deben sentir la participación como un derecho y no como una invitación. Deben también tener la sensación de que la participación tendrá un impacto sobre el proceso que se pretende transformar o en la definición de las políticas que afectan a sus vidas.

Así mismo, la participación ciudadana se deberá regir y orientar bajo los principios generales de cercanía, inclusión, diversidad y eficiencia.

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.- Araudiaren helburuak

Erregelamendu honen xedea da Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua arautzea.

### 2. artikulua.- Izaera

**2.1.-** Berdintasun Kontseilua kide anitzeko partaidetza-organoa da, eta aholkularitzarako, informaziorako, eztabaidarako, azterketarako eta proposamenerako gune gisa eratzen da. Organo horren helburua da Tolosako emakumeen parte-hartze demokratikoa bermatzea, zertarako-eta emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren printzipioa garatu eta bultzatzeko, udalerriko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren eremu guztietan.

**2.2.-** Legitimitate eta lidergo nahikoa aitortzen zaio berdintasun-politikei buruzko asmoak eta proposamenak jasotzeko gune bihurtzeko dadin. Eta, era berean, izan dadila gune bat irizpideak zehazteko eta udal sail eta erakundeetara gomendioak eman ahal izateko, bere

## TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.- Objeto del reglamento

Este reglamento tiene como objeto la regulación del Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

### Artículo 2.- Naturaleza

**2.1.-** El Consejo de Igualdad es un órgano colegiado de participación constituido como espacio para el asesoramiento, la información, el debate, el estudio y la propuesta. Este órgano tiene como objetivo garantizar la participación democrática de las mujeres de Tolosa en el desarrollo e impulso del principio de igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres, en los diferentes ámbitos de la vida política, económica, social y cultural del municipio.

**2.2.-** Se le reconoce la legitimidad y el liderazgo suficiente para que se convierta en un espacio que recoja aspiraciones y propuestas sobre las políticas de igualdad, y, así mismo, que pueda definir criterios y emitir recomendaciones a las diversas áreas y entidades municipales



eskumeneko gaietan ildoak edo gidalerroak orientatzeko.

**2.3.-** Kontseilu hau aholku-emailea da, hau da, gaitasuna du lotesleak izango ez diren iritziak emateko eta proposamenak egiteko, baina beharrezkoak diren mekanismoak eta bideak ere ezarriko ditu, planteatutako iradokizunek udal jardueran eragina izan dezaten.

Ildo horretan, Udalaren erabakiak Kontseiluak egindako proposamen eta ekarpenetatik aldentzen badira, arrazoitu egin beharko du zergatia.

**2.4.-** Erregelamendu honek arautuko du Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseilua.

### **3. artikulua.- Kontseiluaren helburuak**

Hauexek dira Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluaren funtsezko helburuak:

**3.1.-** Tolosako emakumeen parte-hartzea bultzatzeko gune bat eskaintzea, emakumeen parte-hartze aktiboa bermatuko duena eta berdintasunaren arloko erabakiak hartzeko prozesuan eragiteko beharrezkoak diren mekanismoak eta bideak ezarriko dituena.

**3.2.-** Mugimendu Feminista eta emakume-taldeak aitortzen laguntzea, haien eskubideak defendatzea eta zabaltzea, eta emakumeek jardueraren eremu eta bizitzako eremu guztietan benetan parte har dezaten sustatzea.

**3.3.-** Sustatzea emakumeen elkarte eta talde feministen eta gainerako erakundeen arteko lankidetzan, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako politika publikoak bultzatzeko.

**3.4.-** Zaintzea udal politikek, programek

que sirvan para orientar las líneas o directrices en materia de su competencia.

**2.3.-** Este Consejo tiene carácter consultivo, esto es, capacidad para emitir juicios y hacer propuestas que no serán vinculantes, pero establecerá los mecanismos y los cauces necesarios para que las sugerencias planteadas puedan tener influencia en la actividad municipal.

En este sentido, el Ayuntamiento deberá motivar sus resoluciones en el supuesto de que se aparten de las propuestas y aportaciones realizadas por el Consejo.

**2.4.-** El Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa se regirá por el presente reglamento.

### **Artículo 3.- Objetivos del Consejo**

Son objetivos esenciales del Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa los siguientes:

**3.1.-** Ofrecer un espacio para favorecer la participación de las mujeres de Tolosa, garantizar la participación activa de éstas y establecer los mecanismos y cauces necesarios para incidir en el proceso de toma de decisiones en materia de igualdad.

**3.2.-** Contribuir al reconocimiento del Movimiento Feminista y grupos de mujeres, defender y divulgar los derechos de éstas y promover su efectiva participación en los diferentes ámbitos de actividad y espacios de la vida.

**3.3.-** Fomentar la cooperación y colaboración entre las asociaciones y grupos de mujeres feministas y demás entidades en la promoción de las políticas públicas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres.

**3.4.-** Velar por que las políticas,



eta zerbitzuek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa berma dezaten.

**3.5.-** Zaintzea aukera- eta tratu-berdintasuna eraginkorra izan dadin eta zaurgarritasun edo babesgabetasun bereziko egoera jasaten duten emakume guztiei aplikatu dakien, egoera horren arrazoia denean jatorria, gutxiengo nazional, etnia edo klase sozial batekoa izatea, kultura, hizkuntza, desgaitasunen bat, erlijioa, adina, sexua aldatzea edo berresleitzea, sexu-orientazioa, iritzi politikoa, ondarea edo beste edozein.

#### **4. artikulua.- Kontseiluaren eginkizunak**

Adierazitako helburuak lortzeko, Berdintasun Kontseiluak honako eginkizun hauek beteko ditu:

**4.1.-** Defendatzea eta zabaltzea emakumeen eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak.

**4.2.-** Elkarrizketa-gune izatea udalerriko elkarte feministen eta emakume-taldeen eta Tolosako Udalaren artean, berdintasun politikari dagokienez.

**4.3.-** Lankidetzan aritzea eskumena duen udal sailarekin, lehentasunak eta irizpideak zehazteko sailtako berdintasun-planak, programak eta zerbitzuak egiteko, aplikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, eta haien kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna zaintzea.

**4.4.-** Administrazioari iradokizunak proposatzea eta formulatzea, berdintasunaren arloko helburuak bete ditzan. Horretarako, txostenak, proposamenak eta eskaerak egingo ditu, bere ekimenez edo eskatzen zaionean.

programas y servicios municipales garanticen el principio de igualdad de mujeres y hombres.

**3.5.-** Velar por que la igualdad de oportunidades y de trato sea efectiva y se aplique a todas las mujeres que sufren situación de especial vulnerabilidad o desamparo, sea por razón de su origen, pertenencia a una minoría nacional, etnia, clase social, cultura, idioma, discapacidad, religión, edad, cambio o reasignación de sexo, orientación sexual, opinión política, patrimonio o cualquier otro aspecto.

#### **Artículo 4.- Funciones del Consejo**

El Consejo de Igualdad desarrollará las siguientes funciones para la consecución de los fines señalados:

**4.1.-** Defender y divulgar los derechos políticos civiles, sociales, económicos y culturales de las mujeres.

**4.2.-** Servir como espacio de interlocución entre las diferentes asociaciones feministas y grupos de mujeres del municipio y el Ayuntamiento de Tolosa, en lo referente a las políticas de igualdad.

**4.3.-** Colaborar con el área municipal competente en la definición de las prioridades y criterios que han de regir en la elaboración, aplicación, nivel de ejecución y evaluación de los planes, programas y servicios de igualdad de las diferentes áreas, y velar por la calidad, eficacia y transparencia de los mismos.

**4.4.-** Proponer y formular sugerencias a la administración para el cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad, mediante la emisión de informes, propuestas y peticiones por iniciativa propia, o cuando le sea solicitada.



**4.5.-** Sustatzea sexu eta/edo genero arrazoiengatikoko diskriminazioaren eremuarekin lotutako azterlanak eta txostenak egin daitezzen, eta bideratzea kontseiluan ordezkatuta ez dauden elkarte, erakunde edo kolektiboek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikei buruz egindako ekimenak, iradokizunak, eskaerak eta eskakizunak.

**4.6.-** Komunikazioa, harremanak eta trukea bultzatzea Tolosako eta Tolosaldeko elkarte feministen eta emakume-taldeen artean.

**4.7.-** Koordinazioa, lankidetzeta eta partehartzea bultzatzea Protokoloaren Koordinazio Mahaiarekin eta Hezkidetzeta Mahaiarekin, bai eta indarkeria matxistaren aurka jarduten duten beste erakunde, elkarte eta antolakunde batzuekin ere.

**4.8.-** Organo eskudunetan bideratzea Kontseiluari jakinarazten zaizkion jokabide diskriminatzaileen salaketak, legeria eskudunetan adierazitako moduan. Eta, hala badagokio, salaketa publikoa sustatzea.

**4.9.-** Kontseiluaren jardueren urteko plana sustatzea ikasturte bakoitzaren hasieran, eta plan horren amaieran memoria bat aurkeztea, non jasoko diren egindako ekintzen ebaluazioa, lortutako akordioak eta horien garapenaren balorazioak.

**4.10.-** Kontseiluaren jarduketa, jarduera, informazio eta dokumentu guztien berri ematea, aldizka, modu arin eta interaktiboan.

Eginkizun horiek bete ahal izateko, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Udalaren ekintzen berri eman beharko du, berdintasun politikei dagokienez, eta Kontseiluaren esku jarri beharko ditu bere

**4.5.-** Promover la realización de estudios e informes vinculados al ámbito de la discriminación por razón de sexo y/o género, así como canalizar las distintas iniciativas, sugerencias, demandas y peticiones provenientes de asociaciones, entidades o colectivos no representados en el Consejo en relación con las políticas de igualdad de mujeres y hombres.

**4.6.-** Impulsar la comunicación, relación e intercambio entre asociaciones feministas y grupos de mujeres de Tolosa y Tolosaldea.

**4.7.-** Favorecer la coordinación, colaboración y participación con la Mesa de Coordinación del Protocolo y la Mesa de Coeducación, así como con otras entidades, asociaciones y organizaciones que actúan contra la violencia machista.

**4.8.-** Canalizar ante los órganos competentes las denuncias de conductas discriminatorias que sean puestas en conocimiento del Consejo, en los términos planteados en la legislación competente, y, en caso que proceda, promover la denuncia pública.

**4.9.-** Promover un Plan Anual de Actividades del Consejo al inicio de cada curso, y presentar al final del mismo una memoria donde se recojan la evaluación de las acciones realizadas, los acuerdos alcanzados y las valoraciones de su desarrollo

**4.10.-** Informar periódicamente de manera ágil e interactiva sobre todas las actuaciones, actividades e informaciones y documentos del Consejo.

Para poder desarrollar estas funciones, el Departamento de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa deberá informar de las acciones del Ayuntamiento en relación con las políticas de igualdad, y





TOLOSAKO  
UDALA

eginkizunak eraginkortasunez garatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren tresnak.

## II. TITULUA KONTSEILUAREN OSAERA

### 5. artikulua.- Kontseiluaren osaera

**5.1.-** Tolosako Udaleko Berdintasun Kontseiluan honako talde eta kolektibo hauek egongo dira ordezkatzuta:

a) Tolosako udalerrian diharduten erakunde feminista eta emakumeen taldeak, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak hala dihardutela egiaztatzen badu.

b) Gainerako elkarte edo erakundeetako emakumeen sekzioak, baldin eta, estatutuetan edo beren organoek hala erabakita, autonomia funtzionala aitortuta badute eta ordezkaritza-organo propioak badituzte hirugarrenen aurrean, beren eskumen espezifikoko gaitan. Sekzio horiek jardueren memoria baten bidez egiaztatu beharko dute emakumeen eskubideen alde egindako lana.

c) Tolosan ordezkaritza duten sindikatuetako emakumeen sekzioak edo idazkaritzak, berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak, zeinak jarduera memoria batean egiaztatu behar diren.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lan egitearekin lotura zuzena duten helburu eta/edo jarduera nagusiak dituzten elkarteak, baldin eta horri buruzko jarduera-memoria bat egiaztatzen badute eta kontseiluan duten ordezkaria emakumea bada.

e) Hezkidetza Mahaiaren eta genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten

poner a disposición del Consejo los instrumentos necesarios para garantizar el desarrollo eficaz de sus funciones.

## TÍTULO II COMPOSICIÓN DEL CONSEJO

### Artículo 5.- Composición del Consejo

**5.1.-** En el Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa estarán representados los siguientes grupos y colectivos:

a) Las organizaciones feministas y grupos de mujeres que actúen en el municipio de Tolosa, si así lo acredita el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

b) Las secciones de mujeres del resto de asociaciones u organizaciones, que tengan reconocida, estatutariamente o por acuerdo de sus órganos, autonomía funcional, con órganos propios de representación ante terceros en temas de su específica competencia. Estas secciones tendrán que acreditar a través de una memoria de actividades su trabajo en defensa de los derechos de las mujeres.

c) Las secciones o secretarías de mujeres de los sindicatos con representación en Tolosa, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad, que deberán ser acreditadas en una memoria de actividades.

d) Las asociaciones cuyo principal objetivo y/o actividad esté relacionado de manera directa con trabajar por alcanzar la igualdad de mujeres y hombres, siempre que acrediten una memoria de actividades a tal efecto y su representación en el Consejo sea a través de una mujer.

e) Una representación de la Mesa de Coeducación y otra de la Mesa del Primer



emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloko Mahaiaren ordezkari bana.

f) Halaber, Kontseilu horretako kide izango dira alkatea eta Udalean ordezkartza duten talde politikoetako zinegotzi bana.

**5.2.-** Erakunde bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da (titularra eta ordezkoa). Horretarako, izendapena egiaztatu beharko da lehendakariak edo idazkari teknikoak sinatutako agiri baten bidez.

**5.3.-** Kontseilu honetan emakumeek parte har dezakete maila indibidualean, edo erakundeek ere parte hartu ahal izango dute aholkulari lanetan; nahiz eta Kontseiluko kide ez izan, hitza izango dute, baina botorik ez.

Ondorio horietarako, Berdintasun Sailak erregistro bat sortuko du Kontseiluan maila indibidualean parte hartu nahi duten emakumeak inskribatzeko, betiere berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten badituzte. Jarduera eta programa horiek jarduera-memoria batean egiaztatu beharko dira, eta Kontseiluaren Osoko Bilkuran hala egitea erabaki beharko da.

**5.4.-** Kontseilukideak eta ordezkoak hautatzerakoan kontuan hartu behar da Udaleko lan hizkuntza euskara dela. Kontseilukideak, beraz, bi hizkuntzak jakin beharko ditu.

Protocolo Local de actuación y coordinación interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres afectadas por la violencia de género y agresiones sexuales.

f) Formarán también parte de este Consejo, la alcaldesa y una concejala o concejal de cada grupo político con representación en el Ayuntamiento.

**5.2.-** Se designará una representación (titular y suplente) por cada entidad. A los efectos, deberá acreditarse el nombramiento mediante el correspondiente documento suscrito por la presidencia o por la secretaria técnica.

**5.3.-** Este Consejo podrá contar con la participación de mujeres a nivel individual, así como entidades en calidad de asesoras, que, aunque no sean miembros del Consejo, tendrán voz pero no tendrán voto.

A estos efectos, el Área de Igualdad creará un registro para inscribir a las mujeres que estén interesadas en participar a nivel individual en el Consejo, siempre que estas realicen actuaciones y programas en materia de igualdad, que deberán se acreditadas en una memoria de actividades, y que así se acuerde en el Pleno del Consejo.

**5.4.-** En la elección de vocales y suplentes se tendrá en cuenta que la lengua de trabajo del Ayuntamiento es el euskera. Por tanto, la persona designada deberá tener conocimiento de las dos lenguas.

### III. TITULUA KONTSEILUAREN EGITURA, ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

#### 6. artikulua.- Kontseiluaren egitura

### TÍTULO III ESTRUCTURA, ATRIBUCIONES Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO

#### Artículo 6.- Estructura del Consejo





TOLOSAKO  
UDALA

Berdintasun Kontseiluak egitura hau izango du:

- Lehendakaritza
- Kontseiluaren Osoko Bilkura

## **7. artikulua.- Lehendakaritza**

**7.1.-** Tolosako Udaleko alkatea izango da batzordeburua, eta eginkizun hori utzi ahal izango du berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu eta garatzeko ardura duen saileko zinegotziaren esku.

### **7.2.- Hauexek dira lehendakariaren eskumenak:**

**7.2.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkuretarako deialdia egitea, bilkuretako buru izatea eta bilkuretako gai-zerrenda finkatzea. Horretarako, beti hartuko ditu kontuan Berdintasun Sailak eta Kontseiluaren Osoko Bilkurako elkarte, talde eta pertsonen egindako proposamenak.

**7.2.2.-** Parte-hartzea sustatzea eta bermatzea, eztabaida moderatzea, eztabaidak bideratzea, akordioak eta ondorioztapenak lortzea, erabakiak gauzatzea, eta bozketak ebatzea, berdinketarik gertatuz gero.

**7.2.3.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako erabakien berri ematea Udal Korporazioari.

**7.2.4.-** Kontseiluaren, Gobernu Batzarraren eta Udaleko kudeaketa-organoen arteko koordinazioa sustatzea, bai eta lan-batzordeen eta informazio-batzordeen artekoa ere, informazioa trukatzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, baterako neurriak eta jarduerak proposatzeko.

**7.2.5.-** Zaintzea Kontseiluaren helburuak

El Consejo de Igualdad contará con la siguiente estructura:

- La Presidencia
- El Pleno del Consejo

## **Artículo 7.- La Presidencia**

**7.1.-** La Presidencia será ostentada por la alcaldesa o alcalde del Ayuntamiento de Tolosa, que podrá delegar esta función en la concejala o concejal responsable del Área de Igualdad, encargada del diseño, impulso y desarrollo para las políticas de igualdad.

### **7.2.- Son atribuciones de la Presidencia:**

**7.2.1.-** Convocar, presidir las sesiones y fijar el orden del día de las sesiones del Pleno. Para ello, tendrá en cuenta en todo caso las propuestas formuladas tanto por el Área de Igualdad como por las asociaciones, grupos y personas que componen el Pleno.

**7.2.2.-** Promover y garantizar la participación, moderar el debate, dirigir las deliberaciones, obtener acuerdos y conclusiones, ejecutar los acuerdos y dirimir las votaciones en caso de empate.

**7.2.3.-** Informar a la Corporación Municipal de los acuerdos adoptados por el Pleno del Consejo.

**7.2.4.-** Promover la coordinación entre el Consejo y la Junta de Gobierno y los órganos de gestión del Ayuntamiento, así como entre las diferentes comisiones de trabajo e informativas, con el objetivo de intercambiar información y, si se estima necesario, proponer medidas y actuaciones conjuntas.

**7.2.5.-** Velar por el cumplimiento de los



betetzen direla eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dagoen araudian xedatutakora egokitzen direla.

**7.2.6.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak proposatuta, parte hartzera gonbidatzea bai politikariak (Korporazioko zinegotziak), bai teknikariak, entitateak, erakundeak, elkarteak eta azterketa-gai jakin bateko adituak, baldin eta horien iritzia kontrastatu nahi bada.

## **8. artikulua.- Kontseiluaren Osoko Bilkura**

**8.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkura da organo gorena, eta honako hauek osatuko dute:

- Tolosako Udaleko alkatea, legegaldi honetan Berdintasun Saileko arduradun politikoa dena.
- Berdintasun Saileko teknikariak (hitza bai, baina botorik ez).
- Emakume-elkarteen eta erakunde feministen ordezkari bana eta ordezkari bana.
- Tolosako gainerako elkarte edo erakundeetako emakumeen sekzioetako ordezkari bana eta ordezkari bana. Berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak izan behar dute sekzio horiek.
- Udalerrian presentzia duten sindikatuetako emakumeen sekzio edo idazkaritzetako ordezkari bana eta ordezkari bana. Berdintasunaren arloko jarduerak eta programak egiten dituztenak izan behar dute sekzio horiek.
- Hezkidetza Mahaiaren eta genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloko

finos propios del Consejo y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.

**7.2.6.-** A propuesta del Pleno del Consejo, invitar a participar tanto al personal político (concejales y concejales de la Corporación) como al personal técnico, instituciones, entidades, asociaciones y personas expertas en un tema concreto de estudio o cuya opinión se quiera contrastar.

## **Artículo 8.- El Pleno del Consejo**

**8.1.-** El Pleno es el órgano máximo del Consejo y estará compuesto por:

- La alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa, responsable política en esta legislatura del Área de Igualdad.
- Las técnicas del Área de Igualdad (con voz pero sin voto).
- Una representante y suplente de cada una de las asociaciones de mujeres y de las organizaciones feministas.
- Una representante y suplente de cada sección de mujeres del resto de asociaciones u organizaciones de Tolosa, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad.
- Una representante y suplente de cada sección o secretaría de mujeres de los sindicatos con presencia en el ámbito municipal, que realicen actuaciones y programas en materia de igualdad.
- Una representante y suplente de la Mesa de Coeducación y otra representante y suplente de la Mesa del Primer Protocolo Local de actuación y coordinación interinstitucional para la



TOLOSAKO  
UDALA

Mahaiaren ordezkari bana eta ordezkari bana.

- Udal ordezkariak duten talde politikoetako zinegotzi bana eta ordezkari bana.

Udal Korporazioko talde politiko bakoitzak zinegotzi bat izendatuko du bere taldeko ordezkari.

Talde, kolektibo edo erakunde bakoitzeko ordezkariak ordezkari gisa arituko den pertsonaren izendapena egiaztatu beharko du idatzi baten bidez.

Udaleko Idazkaritza teknikoak izendapenak egiaztatu ondoren, Berdintasun Kontseilua eratu da.

## **9. artikulua.- Osoko Bilkuraren eskumenak**

**9.1.-** Kontseiluaren ildo eta jardura estrategikoak zehaztea.

**9.2.-** Urteko Jardura Plana eta dagokion aurrekontua ebaluatzea eta onartzea.

**9.3.-** Gai-zerrendako gai buruzko beharrezko informazioa eta dokumentazioa eskatzea, eztabaidatzeko irizpide nahikoak izan ahal izateko.

**9.4.-** Berdintasunaren arloko politikei, programei eta zerbitzuei buruzko proposamen eta txostenak proposatzea, eztabaidatzea eta horiei buruzko iritzia ematea.

**9.5.-** Kontseiluan emakumeen elkarte edo kolektibo berriak sartzeko proposatzea.

**9.6.-** Udalbatzaren Osoko Bilkurari Erregelamendu hau onartzea

mejora en la atención a mujeres afectadas por la violencia de género y agresiones sexuales.

- Una concejala o concejal y suplente de cada grupo político con representación municipal.

Cada grupo político de la Corporación Municipal designará a su concejala o concejal como representante de su grupo.

La persona representante de cada grupo, colectivo u organización deberá acreditar el nombramiento de la persona que ejerza la suplencia a través de un escrito

Una vez que la Secretaría técnica del Ayuntamiento haya verificado los nombramientos, se constituirá el Consejo de Igualdad.

## **Artículo 9.- Atribuciones del Pleno**

**9.1.-** Determinar las líneas y actuaciones estratégicas del Consejo.

**9.2.-** Evaluar y aprobar el Plan Anual de Actividades y su correspondiente presupuesto.

**9.3.-** Solicitar la información y documentación necesaria sobre los asuntos incluidos en el orden del día para poder tener los criterios suficientes para su deliberación.

**9.4.-** Plantear, debatir y pronunciarse sobre las diferentes propuestas e informes en relación con las políticas, programas y servicios en materia de igualdad.

**9.5.-** Proponer la incorporación de nuevas asociaciones o colectivos de mujeres al Consejo.

**9.6.-** Proponer al Pleno de la Corporación la aprobación de este Reglamento así



proposatzea, eta dagozkion iradokizunak, zuzenketak eta aldaketak proposatzea.

**9.7.-** Kontseiluari dagokion beste edozein, baldin eta Kontseiluaren Lehendakari zari berariaz esleitu ez bazaio.

## **10.- Kontseiluaren Osoko Bilkuraren funtzionamendua**

**10.1.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak urtean gutxienez sei aldiz egingo du ohiko bilkura, lehendakariak deituta.

**10.2.-** Kontseiluaren Osoko Bilkurak ezohiko bilkura egingo du Lehendakariak hala erabakitzen duenean, edo urtean gehienez 3 aldiz ere bilera egin ahal izango du Kontseiluko elkarte edo kideen % 50ek gutxienez hala eskatuta.

**10.3.-** Kontseiluaren Osoko Bilkuretako deialdia egin aurretik, gaien zerrenda bat bidaliko da eta 2 egun balioduneko epea ezarriko da, Osoko Bilkurako kideek proposamenak egiteko aukera izan dezaten gai-zerrendan sartzeko.

**10.4.-** Bilkurak, izan ohikoak, izan ezohikoak, astebete lehenago deitu beharko dira, non eta urgentziazkoak ez diren. Deialdiarekin batera gai-zerrenda ere bidaliko da.

**10.5.-** Kontseiluaren idatzizko komunikazioa: barne harremanetarako idatziak euskaraz izango dira: bilera deiak, aktak, memoriak, azterketak, txostenak eta abar.

**10.6.-** Kontseilua osatzeko izendatutako ordezkariak ez bestek bozkatuko dute Kontseiluaren saioetan.

como proponer las oportunas sugerencias, correcciones y modificaciones.

**9.7.-** Cualquier otra que, correspondiendo al Consejo, no estén expresamente atribuidas a la Presidencia del mismo.

## **10.- Funcionamiento del Pleno**

**10.1.-** El Pleno del Consejo se reunirá en sesión ordinaria, al menos seis veces al año, a convocatoria de la Presidencia.

**10.2.-** El Pleno del Consejo se reunirá con carácter extraordinario, cuando así lo decida la Presidencia, o un máximo de tres veces al año a petición de un número de asociaciones o componentes del Consejo no inferior al 50 %.

**10.3.-** De forma previa a la convocatoria de las sesiones, se remitirá una relación de asuntos, y se establecerá un plazo de 2 días hábiles para que quienes componen el Pleno puedan aportar propuestas, para su inclusión en el orden del día.

**10.4.-** Las sesiones, tanto las ordinarias como las extraordinarias, deberán ser convocadas con una semana de antelación, salvo que tengan carácter de urgencia. A los efectos se remitirá la convocatoria junto con el orden del día.

**10.5.-** Comunicación escrita del Consejo: los escritos de gestión interna serán en euskera: convocatorias de reuniones, actas, memorias, estudios, informes, etc.

**10.6.-** En las sesiones del Consejo votarán solamente las representantes nombradas para la composición del Consejo.



**10.7.-** Kontseilu Osoko Bilkuraren erabakiak gehiago soiluz hartuko dira, baina une oro saiatuko dira hartu beharreko erabakiak adosten.

**10.8.-** Kontseiluaren osaera urte bakoitzaren hasieran eguneratu ahal izango da.

### **11. artikulua.- Idazkaritza teknikoa**

**11.1.-** Idazkaritza teknikoari dagokio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa, eta berdintasun teknikarietako batek edo administrari batek egingo du.

**11.2.-** Hauexek dira Idazkaritza teknikoaren eginkizunak:

**11.3.-** Kontseiluaren bileren deialdiak egitea eta bidaltzea.

**11.4.-** Kontseiluaren bilkuretako akta egitea.

**11.5.-** Organoetako kideen eta ordezkarien zerrenda eguneratuta edukitzea, bai eta ordezkapenen eta kontseilua osatzen duten pertsonen alen eta bajen erregistroa ere.

**11.6.-** Behin-behineko aktak Kontseilua osatzen duten guztiei bidaliko zaizkie, eta hurrengo bilkuran onartuko dira, gai-zerrendako lehenengo puntuan.

**10.7.-** Los acuerdos del Pleno se adoptarán por mayoría simple, aunque en todo momento se tenderá a consensuar las decisiones a tomar.

**10.8.-** La composición del Consejo se podrá actualizar al inicio de cada año.

### **Artículo 11.- Secretaría técnica**

**11.1.-** Corresponde a la Secretaria técnica la gestión administrativa y técnica del Consejo, que será realizada por una de las técnicas o una administrativa.

**11.2.-** Son funciones de esta Secretaría técnica las siguientes:

**11.3.-** Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones del Consejo.

**11.4.-** Levantar el acta de las sesiones del Consejo.

**11.5.-** Llevar de forma actualizada el listado de las personas componentes y representantes de los distintos órganos, así como el registro de las sustituciones, de las altas y bajas de las personas que componen el Consejo.

**11.6.-** Las actas provisionales se remitirán a todas las personas que componen el Consejo, y se aprobarán en la siguiente sesión que se celebre, siendo el primer punto del orden del día a tratar.

Tolosan, 2021eko martxoaren 11n